

# euskaraz bizi **3** vivre en basque

## Méthode multimédia de promotion de la langue basque

- Commande et financement
- Manua eta diru laguntza

Le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques  
Pirinio Atlantiketako Kontseilu Nagusia

- Production déléguée
- Ekoizpen ordezkaturia

L'Association Ikas  
Ikas elkartea

- Réalisation
- Illustrations
- Auteur
- Edition
- Dépôt légal :

l'Office Régional  
d'Éducation Permanente  
Jean Vincent Lizardi  
Erramun Bachoc  
2010  
3° trimestre 2010

- Antolaketa
- Irudiak
- Egilea
- Edizioa
- Gordailu legala

- Participation
- Parte hartzea

- Municipalité d'Ascain, de Hasparren, de St Jean-Pied-de-Port et de Sare
- Ecoles publiques d'Ascain et de Sare, lycée de St Jean-Pied-de-Port, école privée d'Ascain
- Hazparneko ikastola (Hasparren), Kanboko Xalbador Ikastegia (Cambo)
- Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea
- Kimalaxo
- Enseignants et Itinérants de basque

- Distribution
- Banaketa

Le Centre Pédagogique Basque Ikas  
Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua  
Lota, 64 480 Uztaritze  
Tel : 05 59 93 24 80

# **Euskaraz bizi 3**

## **Vivre en basque**

Salgai (en vente)

Euskaraz Bizi 1  
1. bideokazeta

Euskaraz Bizi 2  
2. bideokazeta

Euskaraz Bizi 3  
3. bideokazeta

Euskaraz Bizi 4  
4. bideokazeta

Euskaraz Bizi 5  
5. bideokazeta

Euskaraz Bizi 6  
6. bideokazeta

IKAS

Lota jauregia  
64480 Uztaritze

Tel. 33 (0)5 59 93 24 80  
Fax : 33 (0)5 59 70 32 88

e-posta : [info@ikas.org](mailto:info@ikas.org)  
webgunea : <http://ikas.org>



# Aitzin solas

Euskaraz ikas, euskaraz mintza,  
euskaraz bizi, Euskaldunak baikara.

**H**ona bi lerrotan zein ziren IKAS elkartearen helburuak "Euskaraz Bizi" ikasbidea antolatzekoan. Egia erran, gero eta euskara gehiago ikasten da, ikastola, gau eskola eta eskola elebidunetan. Zorigaitzez gero eta euskara gutiago erabiltzen da nola familietan hala jendarte harremanetan. Zergatik ote? Gerta daiteke ikasi duten hizkuntza ez dela baliagarri ikas-tetxetik kanpo. Alta hizkuntza zertarako da, komunikatzeko ez bada?

"Euskaraz bizi" komunikazio ikasbide bat da. Alde batetik ikusten da nola lotzen diren euskaldunen arteko harremanak gune ezberdinetan, etxean, eskolan, saltegietan, jendartean ; bestalde hizkuntza funtzioak eta egiturak lantzen dira hamar mintzagai nagusiren inguruan :

- nor bere nortasuna eta ingurumena;
- nor bere nahiak eta beste buruzko eskaera-eskaintzak;
- nor bere ekintzak eta besten gertakariak;
- lekutasuna eta denbora;
- iritzien arrazoibidea eta hunkipenen adierazpena.

Liburu bakoitzean funtzio berak lantzen ditugu bainan gero eta hiztegi aberatsagoarekin, gero eta gramatika egitura zehatzagoekin. Bosgarren urrats honetan 2000 hitzetara helduko gara eta aditz trinkoak ikasiko bereziki agintaldian. Esaldiaren joskera ikertuko dugu adierazpen ezberdinetan: galdeak, baiezkoko edo ezezko erantzunak, eragina, zergatiak, denbora.

Liburu hau eginkizun luze batean kokatzen da, IKAS elkarteak bere gain hartu zuen ildoari jarraituz. Diru laguntza Kontseilu Nagusitik etorri zen. Antzerkilariek eta musikariek entzun-ikusgaiak apaindu zituzten, OREPeke eta gero Comediako teknikariek. Orain ikas-tresna hau IKAS pedagogia zerbitzuaren eskuetan dago. Lankidetzaz zabal honetan batasun eta erakunde anitzek parte hartu dute. Badugu denen beharra Euskal Herriaren euskalduntzeko.

Zehaztasun batzuek frantsesez emanen ditugu, erdaldunentzat egina baita liburu hau. Euskaraz bizi daitezten lehenbailehen.

# Mode d'emploi

## Euskaraz bizi

Le programme "Euskaraz Bizi" parcourt sa cinquième étape, de la leçon 41 à 50. Par le biais de sketches, l'élève aura l'occasion d'assister puis de participer à une vingtaine de dialogues qui sont autant de modèles de conversation.

## Apprendre à communiquer

Ce troisième manuel utilise les dix fonctions linguistiques qui ont été retenues comme base de la programmation.

21. L'identification: Nor da gizon hau! (*Qui est cet homme!*)
22. Les besoins: Nola zara? (*Comment allez-vous?*)
23. L'action: Laborantza (*L'agriculture.*)
24. La localisation: Nora zoaz? (*Où allez-vous?*)
25. Les opinions: Zer diozu? (*Que dites-vous?*)
26. L'environnement: Zer etxaldea! (*Quelle propriété!*)
27. La demande: Sal eta eros (*Vente et achat.*)
28. Les événements: Hau lana? (*Quel travail?*)
29. Le temps: Zer egun da? (*Quel date?*)
30. Les émotions: Atsegin atsegabe (*Bonheur, malheur.*)

Chaque unité d'apprentissage présente plusieurs événements de communication dans le cadre de la famille, de l'école, du travail, des loisirs, de la vie sociale. La répétition des structures grammaticales appropriées permet de fixer les automatismes linguistiques qui serviront à la conversation courante.

## Utilisation du manuel

Que se soit en classe, en famille ou dans un groupe informel, la leçon de basque passe par trois étapes:

- la présentation de la situation,
- l'acquisition des automatismes,
- l'utilisation des éléments appris.

Avant d'entreprendre un exercice il vaut mieux étudier le vocabulaire correspondant. Les mots nouveaux apparaissent dans le lexique bilingue situé à la fin de chaque unité.

- 1- La présentation de la situation se fait en visionnant chaque sketch avec le DVD. On peut également utiliser la lecture expressive, le mime. L'élève doit s'imprégner de l'intonation et de la gestualité, car l'expression juste est essentielle pour comprendre le message et le transmettre aux autres.

2. L'acquisition des automatismes linguistiques supposent un entraînement régulier pour que les règles de grammaire deviennent des réflexes de langage. Le paragraphe "Errepika" propose des exercices progressifs qu'on peut utiliser sous la stimulation d'un enseignant, d'un camarade bascophone. Ou même tout seul en s'aidant du livret de traduction. Une cassette qui enregistrerait la répétition serait utile pour vérifier l'exactitude des automatismes.
3. La conversation est l'objectif de chaque leçon. La façon la plus facile d'utiliser les éléments acquis consiste à mimer le sketch étudié en soignant l'expression. L'un des interlocuteurs devrait être bascophone d'origine. Le paragraphe "Eleketa" suggère plusieurs schémas de conversation correspondant à des situations nouvelles. C'est le plus court chemin pour passer de la répétition à la conversation libre. Une difficulté demeure dans la transition entre le basque normalisé (euskara batua) appris en classe et le basque dialectal (euskalkia) utilisé localement.

Des indications pédagogiques plus précises figurent au paragraphe "Comment enseigner la basque", à la page 51.

## **Le projet global**

"*Euskaraz bizi*" est un programme multimédia qui se propose d'appliquer à l'enseignement de la langue basque la méthode communicative préconisée par le Conseil de l'Europe. Voir la documentation concernant le "Niveau Seuil". L'apprentissage tourne autour des fonctions linguistiques et utilise tous les moyens de communication: la vidéo, le livre, la cassette audio, la radio. Elèves et enseignants peuvent se procurer les outils didactiques au Centre pédagogique basque Ikas, Château Lota, 64 480 Ustaritz.

Dès le départ en 1986 l'Association Ikas a été le maître d'œuvre du programme en concertation avec le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques qui en a financé la production. La réalisation audio-visuelle a été confiée d'abord à l'Office régional de l'éducation permanente (OREP), puis à la coopérative Comédia. La concrétisation de ce projet a suscité la mobilisation de nombreux intervenants : municipalités, écoles, institutions, enseignants, élèves, acteurs, chanteurs, musiciens, dessinateurs, techniciens de l'audio-visuel. Le programme "Euskaraz Bizi" se place dans un projet plus vaste, la rebasquisition qui redonnera son vrai visage à l'Euskal Herri.

*Euskararik gabe ez da Euskal Herririk.*

Erramun Bachoc

## 21. Nor da gizon hau ?

### 211. Etxean - Apaintzen.

Neskak ikuzten ari dira.

- Ama - Non zaude Mainer?  
Mainer - Bainugelan nago.  
Ileak orraztatzen ditut  
eta hortzak garbitzen ditut.  
Ama - Matelak zein zuri dituzun!  
Mainer - Betileak beltzatuko ditut  
eta ezpainak doi doia gorrituko.  
Ama - Ez, gaztegi zara margotzeko  
Eta, Ioana non dago?  
Ioana - Bainuan nago.  
Zangoak eta besoak ikuzten ditut.  
Ama - Ez ahantz lepoa  
eta belarri ziloak!  
Ioana - Beharrik ez baitut bizar mozterik!  
Ama - Baina zer derasate?



### 212. Errepika - Egon, egoten, egonen.

Ni	eri	naiz	eta	etxean	nago
Hi	gose	haiz	eta	sukaldean	hago
Zu	irakaslea	zara	eta	isilik	zaude
Peio	zikina	da	eta	bainuan	dago
Gu	ikasleak	gara	eta	eskolan	gaude
Zuek	pilotariak	zarete	eta	plazan	zaudete
Neskak	erneak	dira	eta	merkatuan	daude

### 213. Eleketa - Non zaude?

1. ikaslea - Non dago Mainer? - kanpoan jostazen  
2. ikaslea - Apaingelan. - plazan pilotan  
- saltegian erosten  
1. ikaslea - Zer ari da? - isilik irakurtzen  
2. ikaslea - Orraztatzen ari da. - ikasgelan idazten  
- bainuan ikuzten  
1. ikaslea - Non zaude (Beñat) ? - iturrian edaten  
2. ikaslea - Kanpoan jarririk nago. - sukaldean jaten

## 214. Eskolan - **Gorputza**

*Kirol irakasleak gorputz hezkuntza egiten du panpina handi bat erabiliz.*

Irakaslea – Giza gorputzak baditu  
behar diren tresna guziak:  
zangoak ibiltzeko,  
besoak erabiltzeko,  
eta burua asmatzeko

*Ikasleek errepikatzen dute jestuak eginez.*


Irakaslea – Baditu bularrak airea hartzeko  
eta gero hatsa botatzeko.

Badu bihotza odola bultzatzeko  
eta sabela janariak liseritzeko.

Irakaslea – Zein dira buruko zatiak?  
Begiak ikusteko,  
sudurra usaintzeko,  
belarriak entzuteko,  
ahoa jateko eta mintzatzeko.

Irakaslea – Zein dira besoko zatiak?  
Besaina, ukondoa,  
ukaia eta eskua.

Irakaslea – Zein dira zangoko zatiak?  
Hanka, izterra,  
belauna, eta oina.



## 215. Errepika - **Dena den**

(Gizona) etorri da; gizona handia da.  
Etorri den gizona handia da.

(Neska) etorri da; neskak sudur handia du.  
Etorri den neskak sudur handia du.

## 216. Eleketa - **Gorputza aipa**

Galde : Non duzu burua?  
Erantzun : Sorbalden gainean.

Galde : Zertarako da burua?  
Erantzun : Burua asmatzeko da.

Galde : Zer egiten du bihotzak?  
Erantzun : Odola bultzatzen du.

- hortzak ausikitzeke
- ezpainak musu egiteke
- oinak laster egiteke
- sudurra zintzatzeko
- eriak zenbatzeko
- zintzurra iresteko
- eskuak pilotan aritzeko
- ukabila borrokatzeko

## 217. Lagunartean - **Amerikanoa**

*Gizon arrotza ostatuan sartzen da.*

- Ostalerra – Ikusi duzu sartu den gizona?  
Maddi – Ez, nolakoa da?  
Ostalerra – Xapel beltza dauka buruan  
eta muztatxak lodi ditu.  
Maddi – Nork? Hona heldu den gizonak?  
Ez dut ezagutzen.  
Arrotza – Egun on lagunak.  
Ostalerra – Bai zuri ere. Hemengo aldi?  
Arrotza – Herriko semea naiz ni ere,  
hamar urte honetan  
Kalifornian bizi.  
Maddi – Aspaldikoa!  
Arrotza – Bai, ni zahartua naiz  
eta zuek gazteak zarete.  
Ostalerra – Ongi etorri!  
Denak herritarrak gara.



## 218. Errepika - **Euskaldun xapeldun**

- Bizarra duena bizarduna da. Euskara duena euskalduna da.  
– Erdara duena erdalduna da. Fedea duena fededuna da.  
– Xapela duena xapelduna da.

(Mutilak) bizarra du ; mutilak makila badu eskuan.  
Bizarra duen mutilak makila badu eskuan.

(Gizonak) ile gorriak ditu ; gizona arrotza da.  
Ile gorriak dituen gizona arrotza da.

(Neskak) zango luzeak ditu ; neskari mendia gustatzen zaio.  
Zango luzeak dituen neskari mendia gustatzen zaio.

## 219. Eleketa - **Nor da hori ?**

*Baten eta besteen ezaugarriak.*

Galde : Gizon horrek bizarra badu. Nor da?  
Erantzun : Bizardun gizona irakaslea da.

Galde : Neska horrek ile zuriak ditu. Nor da?  
Erantzun : Ile zuriak dituen neska (Mayi) da.

Galde : Mutil hori pilotaria da. Nor da?  
Erantzun : Pilotaria den mutila (Iñaki) da.



## Kantua - **Tupindegiko Rosali** (*Xaramela 281*)

-1-

Tupindegiko Rosali,  
Tan tiruri ruri!  
Tupindegiko Rosali,  
Paristik zaigu itzuli.  
Dena fazoin, dena takoin,  
Arrunt kaskoin.  
Tupindegiko Rosali,  
Paristik zaigu itzuli.

-2-

Karrikan xut xut ibilki,  
Tan tiruri ruri!  
Karrikan xut xut ibilki,  
Ai espantuka badaki.  
Luxe luxe, mehe mehe,  
Ai tetele.  
Karrikan xut xut ibilki,  
Ai espantuka badaki.

## **Hiztegia 21**

-211- -213-

orraze : peigne  
orraztatu : peigner  
betile : cil  
beltzatu : noircir  
margotu : maquiller  
bizar : barbe  
zikin : sale

-217-

amerikano : américain  
arrotz : étranger  
xapel : chapeau  
bibote, muztatxa : moustache  
lodi : épais  
aspaldi : longtemps  
zahartu : vieillir

-214-

hezkuntza : éducation  
bular : poumon  
hats : souffle  
odol : coeur  
bulzatu : pousser  
jestu : geste  
liseritu : digérer  
usaindu : sentir  
iretsi : avaler  
ukai : poignet  
ukondo : coude  
hanka : hanche  
izter : cuisse  
belaun : genou

-218- -219-

makila : bâton  
mutiko : garçon  
erdara : langue étrangère  
fede : foi  
fededun : croyant  
xapeldun : champion  
ezaugarri : caractéristique

-220-

kaskoin : gascon  
fazoin : façon  
takoin : talon  
espantu : vantardise, exploit

-216-

sorbalda : épaule  
ausiki : mordre  
zenbatu : compter  
ukabil : poing  
borrokatu : lutter

## 22. Nola zara?

### 221. Etxean - Garbitasuna

*Arratsean oherakoan.*

- Ama – Erdi lo zarete, haurrak.  
Pijamak jantz itzazue eta denak ohera.
- Peio – Nik bainua hartu nahi dut.  
Ura beroa ote da?
- Ama – Ez bero, ez hotz, ura epela da  
Xaboia erabil ezazu nasaiki eta xanpua ileentzat.
- Maidier – Hortzak garbitu behar ditut.  
Non da nere hortzetako eskuila eta hortzetako pasta.
- Xabier – Hemen ikuztegi gainean,  
goizean utzi dituzun bezala.
- Ama – Hagin horiek ere torra itzazu.  
bestenaz zilatuko dira.
- Ioana – Leiho hori irekitzen dut,  
aire freskoan lo egiteko.
- Ama – Bai, airea eta ura  
osasunaren adiskideak dira.



### 222. Errepika - Haur hori, haur horrek

- Hau nor da? Honek zer egiten du?
- Hori nor da? Horrek zer egiten du?
- Hura nor da? Harek zer egiten du?

Haur hori akitua da. Haur horrek lo egingen du.

Neska hori garbia da. Neska horrek bainua hartu du.

Mutiko hori bainugelan da. Mutiko horrek hortzak garbitzen ditu.

### 223. Eleketa - Oherakoan

*Arratseko garbitasuna konda hiru pertsonetan:*

1. Nik atorra erantzi (kendu) dut. – xurruta (dutxulua) ireki
2. Zuk begitartea ikuzi duzu. – eskuak xukatu
3. Horrek haginak garbitu ditu – zangoak ikuzi
4. Horiek eskuak ikuzi dituzte. – soinekoak jantzi
- ilea orraztatu

## 224. Gizartean - **Sendagilearen etxean**

*Koldo eri da. Sendagilea edo medikuarengana joaten da.*

- Medikua – Zer duzu Koldo?  
Koldo – Zintzurrean min.  
Medikua – Mihia luza ezazu.  
Bai sukar piska bat baduzu.  
Koldo – Ohean egon behar dut  
Eri handi naiz ote?  
Medikua – Deus ez duzu.  
Ziropa hau edanen duzu,  
kuilera bat goizean  
kaxeta horiek iretsiko dituzu  
bazkal ondoan eta arratsean.  
Koldo – Hauxe da sendagailu andana!  
Medikua – Behar dena behar da.



## 225. Errepika - **Min duenak?**

(Gizonak) zintzurrean min du; gizonak kaxeta hartu du.  
Zintzurrean min duen gizonak kaxeta hartu du.  
Zeinek? - Zintzurrean min duenak.

(Haurrek) zintzurrean min dute; haurrek ziropa edanen dute.  
Zintzurrean min duten haurrek, ziropa edanen dute.  
Zeinek? - Zintzurrean min dutenek.

## 226. Eleketa - **Sendagilea eta eriak**

*Ikasle bat mediku, besteak eri.*

- |                                 |                         |
|---------------------------------|-------------------------|
| Medikua – Zer duzu, (Beñat)?    | Begietan min dut        |
| Eria – Sabelean min dut         | eta gaizki ikusten dut. |
| eta beheitikoa dut.             | Itsutuko ote naiz?      |
| Medikua – Hemen min duzu?       | Haginean min dut.       |
| Eria – Bai, apendizita ote dut? | Zilo da.                |
| Medikua – Ez, ez duzu sukarrik. | Zangoan min dut,        |
| Har ezazu ziropa hori,          | aztalean ere bai,       |
| goizean koilera bat...          | eta maingu naiz.        |

## 227. Gizartean - **Farmazian (sendategian)**

*Amaia erremedio (sendagailu) erosten.*

Farmaziena – Zer nahi duzue jaun andereak?

Amaia – Bizkarrean min dut  
eta erremedio bat nahi dut.

Farmaziena – Erori ote zara?

Amaia – Ez ez, erreumatismoak ditut.

Farmaziena – Medikua ikusi duzu?

Amaia – Bai, ordonantza hau ukan dut.

Farmaziena – Gantzugailu hau har ezazu  
eta bizkar hezurra pereka ezazu.

Amaia – Asurantz papera beteko duzu?

Farmaziena – Bai segurki! Orizu.  
Zazpi euro da.

Eta zuk jauna, zer nahi duzu?

Koldo – Amaiaren lagun etorria naiz.  
Osagarri ona dut nik.

Farmaziena – Hobe segurki! Izan ongi.



## 228. Errepika - **Neska hori, neska horiek**

Neska hori etorri da. Horrek sendagailua erosi du.

Mutiko horiek osasunean dira. Horiek ez dute tisanik edanen.

Hori nor da? Horrek zer egin du?

Horiek nor dira? Horiek zer egin dute?

Hau nor da? Honek zer egin du?

Hauk nor dira? Hauek zer egin dute?

Hura nor da? Harek zer egin du?

Haiek nor dira? Haiek zer egin dute?

## 229. Eleketa - **Sendagailuak**

Anaia – Nire anaia eri da. Zer egin behar du?

Farmaziena – Eri denak medikua ikusi behar du.

Anaia – Nire arrebak idorreria du. Zer edan behar du?

Farmaziena – Idorreria duenak gatz purga hartuko du.

Gripa eta kaxetak;  
beheitikoa eta tisana;  
eztula eta ziropa.

Gogordura eta gantzugailua;  
gorrinoak (karranpina) eta xertoa;  
marranta eta azpirina.

-1-

Jaz hil zitzaitan senarra  
 Nik nahi nuen bezala!  
 Itsutu zen,  
 Elkortu zen,  
 Maingutu zen,  
 Konkortu zen:  
 Zaharra zen, hil bedi!  
 Ez zuen balio lau ziri!

2-

Aurten hartu dut senarra  
 Nik nahi nuen bezala!  
 Ez da itsu,  
 Ez da lausu,  
 Badu zentzu,  
 Badu diru:  
 Diru deno, bizi bedi!  
 Gero hil dadila noiz nahi!

**Hiztegia 22**

-221-

mediku	: médecin
garbitatsun	: hygiène
epel	: tiède
xaboi	: savon
xanpu	: shampoing
hortzetako eskuila	: brosse à dent
ikuztegi	: lavabo
garbi	: propre
garbitu	: nettoyer

-223-

erantzi	: dévêtir
hagin	: molaire
xurruta, dutexulu	: robinet
xukatu	: sécher

-224-

eztul	: toux
ufatu	: souffler
gripa	: grippe
luzatu	: allonger
sukar	: fièvre
piska	: un peu
deus	: rien
ziropa	: sirop
kaxeta	: comprimé
andana	: quantité
sendagailu, erremedio	: remède

-226-

beheitiko	: diarrhée
apendizita	: appendicite
itsu	: aveugle
zilo	: troué
zilatu	: trouer
aztal	: talon
maingu	: boiteux

-227-

farmazia, sendategi	: pharmacie
erreumatismo, erreuma	: rhumatisme
ordonantza	: ordonnance
gantzugailu	: onguent
hezur	: os
bizkar hezur	: colonne vertébrale
asurantz	: assurance
segur, seguru	: sûr

-229-

kontseilu	: conseil
idorreri	: constipation
gogordura	: courbature
gorriño, karanpilo	: rougeole
gatz	: sel
purga	: purge
marranta	: rhume
azpirina	: aspirine
elkor	: sourd
konkor	: bossu
lausu	: myope
zentzu	: bon sens

## 23. Laborantza

### 231. Eskolan - **Laborarien lana**

*Ikasgelan laborantzako lanak aipatzen dituzte*

- Andereño – Egun zer ari dira zuen aitak?  
Maite – Goizean aitak aratxeak bazkatu ditu eta gero behiak jetzi ditu.  
Beñat – Guk esnea saltzen dugu.  
Esneketaria esne biltzen dabil.  
Xabier – Gure amak gasna egiten du esneaz eta gurina esne gainaz.  
Iban – Gure ardiak larrean dabilta.  
Bildotxak (axuriak) badituzte.  
Maite – Guk xerriak hazten ditugu.  
Oihanean ezkurak jaten dituzte.  
Beñat – Neguan xerri hiltzeak dira.  
Odolkiak eta lukinkak jaten ditugu.  
Xabier – Xingar azpiak dilindan ezartzen ditugu.  
Ezkaratzean idortuko dira (zintzilik).



### 232. Errepika - **Hemen, hor, han.**

Hemen : pentzea, pentze hau;  
pentzean, pentze hortan.

Hor : larre hori;  
larre hortan.

Han : Oihana, oihan hura;  
Oihanean, oihan hartan.

### 233. Eleketa - **Non dago behia?**

*Mapa batean, ikasle bakoitzak erakusten du non dauden abereak.*

1. ikaslea – Non dago behia?
2. ikaslea – Behia pentze hortan dago.

1. ikaslea – Non dago ardia?
2. ikaslea – Ardia larre hortan dago.

1. ikaslea – Non dago zaldia?
2. ikaslea – Zaldia oihan hortan dago.

## 234. Familian - Landetan

*Aita hurrekin dabil arto landa bazterrean*

- Aita – Kapeta (kukula) mozten ari, Pattin?  
Pattin – Zuek ere hemengo aldi, jendeñoak!  
Peio – Zer arto landa ederra duzun!  
Pattin – Ez da ustegabetarik!  
Udaberrian goizik irauli nuen.  
Aita – Irauli eta ongi ildautsi zinuena.  
Pattin – Onkailuak nasaiki hedatu nintuen  
eta berehala erein nuen.  
Maidar – Ikus! Zer tresna andana!  
Peio – Traktoreak goldea derabil.  
Beñat – Hori area da ildausteko.  
Pattin – Hementxe dugu ereingailua.  
Aita – Udazkenean artoak zohituko dira  
eta etorriko gara biltzera.  
Ikusiko duzue zer pesta den!  
Pattin – Zer? bilgailua lagunduko duzue arto  
biltzen?



NOR	NON	(BAI)	NOR	(BAI EDO EZ)	NON
Ni	hemen	nabil	Ni	banabil	hemen
Hi	hor	habil	Hi	ez habil	hor
Hori	han	dabil	Hori	badabil	han
Gu	pentzean	gabiltza	Gu	ez gabiltza	pentzean
Zu	bidean	zabiltza	Zu	bazabiltza	bidean
Zuek	bidean	zabiltzate	Zuek	bazabiltzate	bidean
Horiek	mendian	dabiltza	horiek	ez dabiltza	mendian

## 235. Errepika - Ibil, erabil.

- Ibil, ibili, ibiltzen, ibiliko da.
- Erabil, erabili, erabiltzen, erabiliko dut.

## 236. Eleketa - Non dabil? Zer derabil?

1. – Pattinek goldea erabiltzen du landan.  
– Non dabil Pattin? Zer derabil Pattinek?
2. – Aitak baratzean patatak biltzen ditu aitzurraz. Non? Zer?
3. – Laborariak landa ildausten du areaz. Non? Zer?
4. – Itzainak orgak eramaten ditu merkatura. Non? Zer?



## 237. Etxaldean - **Pentzean**

*Laboraria belar epaiten pentze bazterrean*

- Manex – Zer, sega (tailu) zorrozten?  
Pattin – Udan belarrak egin nituen.  
Orain bazterrak mozten ditut.
- Manex – Sega zorrotza erabiltzen duzula!  
Pattin – Ea belar epaiten badakizun!  
Utz utz bakoitza bere ofizio.
- Manex – Nik sardeaz (xixpaz)  
belarra metatuko dut.
- Pattin – Bainan larri larria ari zara.  
Ondarkinak arresteluaz  
bil itzazu.  
Saskia bete dezagun.
- Manex – Saskian eraman ahala baduzu, Pattin!  
Pattin – Altxa! Milesker zure laguntza gatik.



## 238. Errepika - **Egin nuen, egin nituen**

Belar meta egin nuen, egin huen, egin zuen  
Belar meta egin genuen, zenuen, zenuten, zuten

Belarrak egin nituen, hituen, zituen,  
egin genituen, zenituen, zenituzten, zituzten

Pentzeak, pentze horiek  
Pentzeetan, pentze horietan

Hauk, hauetan  
Horiek, horietan

Oihanak, oihan horiek  
Oihanetan, oihan horietan

Haiek, haietan  
Hauetako, horietako

## 239. Eleketa - **Non dabilta behiak?**

*Mapa batean ikasleak erakusten du abereak non dabiltzan.*

1. ikaslea – Non dabilta behiak?
2. ikaslea – Behiak pentze horietan dabilta.

1. ikaslea – Non dabilta ardiak?
2. ikaslea – Ardiak larre horietan dabilta.

1. ikaslea – Non dabil zaldia?
2. ikaslea – Zaldia oihan horietan dabil.



## Kantua - **Sotoko goporra** (Pierre Dibarrart)

-1-

Aitak eman zerautan zerurat joaitan  
Enetzat mahastia, artzeko lanean.  
Arta nezala, aitak bezala, aitzur eta jorra.  
Laguntzat hor nuela sotoko goporra.

-2-

Etxe xuri ttipi bat, badut mahastian.  
Sagar, udare, piko, mertxiken artean.  
Etxaitzinean, loren erdian, baratze alorra.  
Dutxuluaren pean, sotoko goporra.

### **Hiztegia 23**

-231-

aratxe, xahala : veau  
bazka : nourriture  
bazkatu : nourrir  
jetzi : traire  
esnegain : crème  
larre : pâturage  
bildots, axuri : agneau  
ezkur : gland  
negu : hiver  
lukinka : saucisse  
dilindan, zintzilik : en suspens  
azpi : dessous  
ezarri : mettre  
ezkaratz : vaste entrée  
bakoitz : chaque  
idor : sec  
idortu : sécher

ildautsi : herser  
onkailu : engrais  
traktore : tracteur  
golde : charrue  
are : herse  
ereingailu : semoir  
bilgailu : ramassoir

-236-

erabili : utiliser  
aitzur : pioche  
idi : boeuf  
itzain : bouvier  
orga : charrette

-239-

belar : herbe  
epaitu : faucher  
sega, tailu : faux  
ofizio, lanbide : métier  
sarde, xixpa : fourche  
meta : tas  
metatu : entasser  
larri : grossier  
ondarkin : reste  
arrestelu : rateau  
saski : corbeille  
ahal : puissance  
laguntza : aide

-233- -234-


abere : animal  
zaldi : cheval  
bazter : bord  
kapeta, kukulu : fleur du maïs  
ustegabe : imprévu  
goizik : tôt  
sotoko goporra : bol de la cave  
ildo : sillon

## 24. Nora zoaz?

### 241. Familian - **Hiri ikuska**

*Etxemendi familia Baionako karraketan*

- Aita – Paulmy ibilbide bazterrean  
utziko dugu autoa  
Hango parkean tokia bada gureztat
- Ama – Orain goazen Euskal Erakustokira.
- Maider – Ama begira ezazu!  
– Peio karrika erdira doa.
- Ama – Kasu emazu Xabier. Zaude gurekin,  
eta espaloian ibil zaite.
- Aita – Urrunetik ikusi dugun eliza nagusia  
gain hartan da.  
So egin ezazue bi ezquila-dorreei.
- Ama – Jauregi Zaharraren ondotik  
bagoaz herriko etxera
- Peio – Soropila eder hori nork artatzen du?
- Ama – Hori baratzezainen lana da.  
Guk ere hiria garbi atxiki behar dugu.



### 242. Errepika - **Joan, joaten, joanen**

NOR	NORA	(BAI)	NOR	(BAI, EZ)	NORA
Ni	etxera	noa	Ni	banoa	etxera
Hi	nora	hoa ?	Hi	ez hoa	lanera
Zu	horra	zoaz	Zu	bazoaz	horra
Peio	eskolara	doa	Peio	badoa	eskolara
Gu	horra	goaz	Gu	ez goaz	horra
Zuek	horra	zoazte	Zuek	bazoazte	horra
Ikasleak	hara	doaz	Ikasleak	ez doaz	hara

### 243. Eleketa - **Nondik nora.**

*Hertzainarena egin.*


1. ikaslea – Errazu, hertzaina, non da ikastegia?
2. ikaslea – Zoaz postetxera, eta handik eskuinera.

1. ikaslea – Non da kartier (auzo) zaharra?
2. ikaslea – Zoaz harresira eta handik ezkerredera.

## 244. Gizartean - **Azkaingo inguruak**

*Txomin eta Iñaki Azkainen*

- Pattin – Lohizundarrak Azkainen!  
Aspaldiko partez!
- Iñaki – Herri ederra duzue.  
Karrika nagusi hori bereziki.
- Pattin – Bai, bidekurutze hortatik hona,  
hor ditugu saltegiak  
eliza eta merkatuko plaza.
- Txomin – Eta behere hartan kiroldegi berria,  
futbol zelaia eta pilota plaza.
- Iñaki – Jende asko badoa eskuin eta ezker,  
gain hortarik behere hortara.
- Pattin – Gazte anitz badoa auzo hortara.  
Han daude eskolak eta ikastegiak.
- Txomin – Goazen ostatu hortara,  
kafe on bat hartzera.



## 245. Errepika - **Hemen, hortik, hara.**

Hemen, hemendik, hona: etxetik eskolara;  
etxe hortarik, eskola hortara.

Hor, hortik, horra: merkatutik plazara;  
merkatu hortarik plaza hortara.

Han, handik, hara: menditik larrera;  
mendi hartarik, larre hartara.

## 246. Eleketa - **Nondik nora zabil?**

*Hiriko mapa erabil.*

1. ikaslea – Barkatu jauna. Non da Elhuyar ikastegia?
2. ikaslea – Zoaz hemendik horra eta gero hara.

1. ikaslea – Nondik nora?
2. ikaslea – Plaza hortarik banketxe hortara.  
– Eta hortik suhiltzaileen etxera.  
Han dago zure ikastegia.

1. ikaslea – Esker mila!

## 247. Lagunartean - Txirrindulez

*Bi lagun Azkainen gaindi txirrindulez (bizikletez).*

Maddalen – Egun on, jauna. Urruñatik nator eta Senperera noa.

Nondik ibiliko naiz?

Koldo – Agur, anderea.

Errabote aitzinetik iragan zaitez

Maddalen – Gero zubitik etxe horietara?

Koldo – Bai, zubi hortarik

bidekurutze hartara,  
eta han eskuin aldera.

Maddalen – Hiri barnea ere ikusi nahi dut.

Koldo Ederki. Hementxe berean da.

Hortxe dago Herriko Etxea.

Maddalen – Hantxe iturria da?

Koldo – Bai, iragan zaitez eliza gibeletik.

Maddalen – Karrika hortarik plaza hartara?

Koldo – Bai, eta han dituzu Etxe Xuria eta Zubi Erromanoa.

Hantxetik Larrun ikusiko duzu.

Maddalen – Milesker, banoa.



## 248. Errepika - Hementxe, hortxe, hantxe.

Hementxe, hementxetik, hementxera:

Etxe hontan, etxe hontarik, etxe hontara.

Etxe hauetan, etxe hauetarik, etxe hauetara.

Hortxe, hortxetik, hortxera:

Karrika hortan, karrika hortarik, karrika hortara.

Karrika horietan, karrika horietarik, karrika horietara.

Hantxe, hantxetik, hantxera:

Bide hartan, bide hartarik, bide hartara.

Bide haietan, bide haietarik, bide haietara.

## 249. Eleketa - Bide seinaleen erranahia

1. ikaslea – Karrika hontarik pasatzen ahal da?

2. ikaslea – Ez, norabide debekatua da.



1. ikaslea – Bide hortarik nora zoaz?

2. ikaslea – Eskuineko bideak dauka lehentasuna.



1. ikaslea – Hemen gelditzen ahal da?

2. ikaslea – Bai, autoen parkea da.



## Kantua - **Makila** (Ithurralde)

-1-

Begiztatua nuen aspaldi mendian,  
Mizpirondo xuxen bat sasien erdian.  
Handitzerat utzi dut eta harekila,  
Aurten egin dut nere euskaldun makila  
Tra la la...

-2-

Bi erroten gainean joaiten ez ikasi,  
Burdin-bidetan aldiz sabela nahasi.  
Bainan nun dut karrosa? Nun dut berebila?  
Oinez beti banoa, eskuan makila.

(Kantuz 22)

### **Hiztegia 24**

-241-

ibilbide : allée  
parke : stationnement  
espaloi, oinbide : trottoir  
nagusi : maître  
ezkila : cloche  
dorre : tour  
jauregi : château  
soropila : pelouse  
baratzezain : jardinier  
atxiki : tenir

-243-

hertzain : policier  
ikastegi : école  
auzo : voisin, quartier  
auzune : quartier  
harresi : rempart

-244-

Lohizundar : Luzien  
parte : part, partie  
berezi : spécial  
bidekurutze : carrefour  
behere : dessous  
kiroldegi : centre sportif  
zelai : terrain, plaine  
asko : nombreux

-246-

banketxe : banque  
suhitzaile : pompier

-247-

txirrindula, bizikleta : vélo  
Urruña : Urrugne  
Senpere : St-Pée-sur-Nivelle  
errebote : fronton  
alde : côté  
Larrun : "La Rhune"

-249-

seinale : signal  
norabide : orientation, sens  
debekatu : interdire  
lehentasun : priorité

-Kantua-

begiztatu : observer  
mizpira : nêfle  
sasi : buisson  
handitu : grandir  
aurten : cette année  
erota : roue  
nahasi : secouer  
beribil : automobile  
burdinbide : chemin de fer  
karroza : carrosse

## 25. Zer diozu

### 251. Familian - **Kantaldia**

*Kantaldi artean, Etxemendi familiaren gogoetak.*

- Maider – Niri kantaldi hau  
biziki gustatu zait.
- Ioana – Niri ere bai. Oskorri maite dut.  
Ederki kantatzen du.
- Aita – Niri rocka bortitza zait.  
Kantu zaharrak maite ditut.
- Peio – Musika tresnak paregabeak dira:  
arrabita, kitarra  
trikititxa eta panderoa.
- Ama – Saxoa azkarra da.  
Giro airosa ematen dio bilgune honi.
- Aita – Bai eta entzule guztiei.  
Beha ezaioizue gazte hauei!
- Peio – Bai eta jende adinetako horiei!



### 252. Errepika - **Horri, Horiei**

- Pesta hau neskari gustatu zaio.  
Nori? Neska honi.
- Pesta hau neskei gustatu zaie.  
Nori? Neska hauei.
- Kantaldi hori mutikoari gustatu zaio.  
Nori? Mutiko horri.
- Kantaldi hori mutikoei gustatu zaie.  
Nori ? Mutiko horiei.
- Dantzaldi hura gazteriari gustatu zaio.  
Nori? Gazteria hari.
- Dantzaldi hura gazteei gustatu zaie.  
Nori ? Gazte haiei.

### 252. Eleketa - **Pesta gustatu zaizu?**

*Gogoetak kantaldi bati buruz.*

## 254. Gizartean - **Herriko etxean (udaletxean)**

*Koldo eta Maddi diru solas auzapezarekin.*

Auzapeza – Zer diozue, adiskideak,

Koldo – Atzo hona etorri ginen  
eta ez zinen Herriko Etxean.

Auzapeza – Pauen nintzen  
Kontseilu Nagusian.  
Herriko bideetaz mintzatu ginen.

Maddi – Eta zerbait erdietsi zinuez?

Auzapeza – Bai segurki. Zer uste duzu?  
Galdegina beti ukaiten dut.

Koldo – Hain zuzen hori zen gure kezka:  
gure bideko zubia funditu zen.

Auzapeza – Badakit zubia funditu zela.  
Bainan berehala ez dut dirurik  
zubi hori berritzeko.  
Zorigaitzez! Bai, zorigaitzez!

Maddi – Artean nondik ibiliko gara?  
Ala Pauetik aments?

Auzapeza – Zaude, zaude! Ez kexa.  
bakoitza bere bidetik ibil dadila.  
Ura ere bere bideari jarraitzen zaio.

Koldo – Bainan guk beste bide bat hartuko dugu.

Maddi – Gure berri ukanen duzu.



## 255. Errepika - **Ibili naiz, ibili nintzen**

NOR	ZER	EGUN	NOR	ZER	LEHEN
Ni	ibili	naiz	Ni	ibili	nintzen
Hi	ibili	haiz	Hi	ibili	hintzen
Zu	ibili	zara	Zu	ibili	zinen
Neska	ibili	da	Neska	ibili	zen
Gu	etorri	gara	Gu	etorri	ginen
Zuek	etorri	zarete	Zuek	etorri	zineten
Neskak	etorri	dira	Neskak	etorri	ziren

## 256. Eleketa - **Gustatu zaizkio**

Mutilari txirulak gustatu zaizkio.

Mutilei txirulak gustatu zaizkie.

Neskari ttunttunak ez zaizkio gustatu.

Neskei ttunttunak ez zaizkie gustatu.

## 257. Lagunartean - **Manifestaldia**

*Lagunek maiatzaren leheneko manifa prestatzen dute.*

Mailux – Uste dut manifestaldia prest dela.

Txomin – Nik ikurriña eramanen dut  
denen aitzinean.

Mailux – Gero laborarien oihala.

Manex – Herrian bizi nahi dugu.  
Bai, nik diot orain  
denen petzero garela.

Mailux Laborarien ondotik langileak.

Amaia – “Lana herrian”.

Mixel – Guk diogu, lan gabezia  
makur handia dela herriarentzat.

Amaia – Baina ez garela ihes joanen.

Koldo – Guk goraki erraten dugu,  
euskararik gabe  
ez dela Euskal Herririk.

Maddi – “Euskal herrian euskaraz”!



## 258. Errepika - **Zer dela?**

– Zer da euskara?  
Euskara gure hizkuntza da.

– Zer diozu? (Zer erran duzu? Zer uste duzu?)  
Nik diot euskara gure hizkuntza dela.

– Ikus perpaus osatzailea, 90. orrialdean.

## 259. Eleketa - **Zer diote?**

*Bakoitzak bere ideiak.*

Irakaslea – Zer uste du Mailuxek?

Ikaslea – Manifa prest dela.

Irakaslea – Zer erran du Txominek?

Ikaslea – Ikurriña eramanen duela.

Irakaslea – Zuk zer diozu?

Ikaslea – Eskolan euskara ikasi behar dela.



## Kantua - **Gazteri berria** (Michel Labéguerie)

-1-

Aita zer egin duzu gure lur maitea?  
Kanpokoari saldu, oi dohakabea!  
Arrotzez betea da Euskadi guzia,  
Euskalduna etxean ez da nausia

Errepika: Gu gira Euskadiko gazteri berria,  
Euskadi bakarra gure aberria (berriz)

-2-

Aita zer egin duzu euskara maitea  
Erdaran hazi duzu oi zure semea.  
Ontasun ederrena aita batek galtzea,  
Bihotzean sartua dugu ahalgea.

*(Herria Oihuka, 131)*

### **Hiztegia 25**

-251- -252-

dio	: dit-il
kantaldi	: tour de chants
rocka	: rock
bortitz	: violent
pare	: paire, égal
gabe	: sans
arrabita	: violon
kitarra	: guitare
trikititxa	: accordéon
panderoa	: tambourin
saxo	: saxo
azkar	: fort, intelligent
giro	: ambiance
bilgune	: lieu de réunion
entzule	: auditeur
dantzaldi	: bal

-254- -256-

auzapez	: maire
nagusi	: supérieur
Kontseilu Nagusi	: Conseil Général
erdietsi, lortu	: obtenir
kezka	: souci
funditu	: détériorer
berehala	: tout de suite
Paue	: Pau
kexatu	: se fâcher
kexu	: irrité
Herriko etxe, udaletxe	: mairie

jarrai	: suivre
txirul	: flûte
ttuntun	: tambourin

-257- -259-

manifestaldi	: manifestation
maiatz	: mai
prest	: prêt
ikurriña	: drapeau basque
bizi	: vie, vivant
petzero	: larbin
hizkuntza	: langue
ideia	: idée
oihal	: banderole
langabezia	: chômage
makur	: malheur, erroné

-Kantua-

gazteria	: jeunesse
kanpoko	: étranger
dohakabe	: malheureux
Euskadi	: Pays Basque
aberri	: patrie
abertzale	: patriote
hazi	: nourrir, élever
ontasun	: bien, richesse
ahalge	: honteux, honte
oihuka	: en criant

## 26. Etxaldea

### 261 Etxean - Baratzean

*Baratzeko lanak.*

- Ama – Egurraldi ederra dugu.  
Zer aroa baratzean aritzeko!
- Aita – Har ditzagun tresnak.  
Aitzur hau niretzat.
- Peio – Nik eskuare hau hartzen dut.
- Aita – Eta zuk Maider, zer daukazu?
- Maider – Nik laia daukat (palaera),  
lurraren itzultzeko.
- Ama – Hemen azak eta entsaladak.  
Hor porruak landatuko ditugu.
- Ioana – Nik ilarrak ereinen ditut
- Xabier – Eta nik biper gorriak.
- Ama – Hazitegian tipulak  
eta baratxuriak  
sortaraziko ditugu.
- Peio – Ederki, goazen lanera.
- Xabier – Haatik ni orgatxoetan.  
Ez dea hala, ama?



### 262. Errepika - Zer daukazu?

Nik pala daukat eskuan.  
Hik eskuarea daukak/n.  
Aitak laia dauka.

Guk baratzea daukagu.  
Zuk lana daukazu.  
Zuek lorategia daukazue.  
Hurrek pilota daukate.

Nik tresnak dauzkat.  
Hik haziak dauzkak/n.  
Aitak onkailuak dauzka.

Guk barazkiak dauzkagu.  
Zuk eskorgak dauzkatzu.  
Zuek loreak daukatzue.  
Hurrek jostailuak dauzkate.

### 263. Eleketa - Baratzeko lanak

*Bakoitzak baratzeko gauza bat marratz dezala.*

1. ikaslea – (Maite), zuk zer daukazu?
2. ikaslea – Nik aitzurra daukat.

1. ikaslea – Eta zuk, (Beñat), aitzurra daukazu?
3. ikaslea – Nik ez daukat aitzurrik,  
tomate landareak dauzkat.

## 264. Etxaldean - **Abereak**

*Etxondoko itzulia Maddalenekin.*

- Maddalen – Bazabiltzate hemen gaindi?  
Ama – Bagabiltza bazter ikuska.  
Maddalen – Zatozte abereen ikustera  
Ama – Zer etxalde ederra, Maddalen!  
Maddalen – Badaukagu artalde handia,  
ardi eta axuri  
Iona – Ama, kasu marroari!  
Maddalen – Barrukian badauzkagu behi  
esnadunak eta kanpooan  
behi gorriak.  
Maider – Zeinena da xahal hori?  
Maddalen – Behi gorri horrena.  
Peio – Ama zerritxolan bada xerria  
eta zerrama bere zerrikumeekin.  
Maider – Nik oiloak ikusi ditut,  
ahateak ere bai.  
Maddalen – Purra! Purra!  
Bihia bota ezazue oiloentzat.  
*Maiderrekin artoa botatzen dio Peiori.*  
Peio – Geldi hadi, astaña.  
Maider – Eta hi, haizen astoa.



## 265. Errepika - **Honena, horrena, harena.**

Artzain honek artaldea badu;  
artzain honen artaldea da;  
artalde artzain honena da.

Honek artaldea badu;  
honen artaldea da;  
artalde honena da.

Emazte horrek baratzea badu;  
emazte horren baratzea da;  
baratzea emazte horrena da.

Horrek baratzea badu;  
horren baratzea da;  
baratzea horrena da.

Neska harek motoa badu ;  
neska haren motoa da ;  
mtoa neska harena da.

Harek motoa badu ;  
haren motoa da ;  
mtoa harena da.

## 266. Eleketa - **Etxaldeaz mintza.**

*Maddalenen, edo nork bere etxaldea aipa.*

1. ikaslea - Maddalenek zein abere dauzka etxaldean ?
2. ikaslea - Maddalenek ardiak dauzka, bai eta behiak...

1. ikaslea - Zenbat behi dauzka barrukian ?  
Aratxea, zein behirena da ?  
Zer dago zerritegian ?  
Nola bazkatzen dira oiloak ?

## 267. Etxaldean - Landareak

*Ama eta haurrak etxe inguruan.*

Ama – Baratze itzuli bat eginen dugu.

Maider – Hemen tomate ondoak dira.

Peio – Zer da belar hau?

Ama – Ez da belarra. Porrua da.

Peio – Porru salda ez dut maite.

Maider – Zer kuia ondo ederra!  
Kasu kirtena hautsi gabe.

Ama – Ikus lorea, ostoa  
eta kuia buru ttipia

Ama – Ea beste barazkiak ezagutzen dituzuen.

Maider – Hau aza da, aza belarri berdea.

Peio – Hau biperra da, biper mihi gorria.

Peio – Oihanera joaten ahal gara,  
haritz horien azpira!

Maider – Bai, uzkinazoak eta xoxoak  
entzunen dituzue.

Ioana – Araiz ez da otsorik  
ez eta ere arranorik!



## 268. Errepika - Hauena, horiena, haiena.

Gizon hauek ardiak badituzte;  
gizon hauen ardiak dira;  
ardiak gizon hauenak dira.

Hauek ardiak badituzte;  
hauen ardiak dira;  
ardiak hauenak dira.

Emazte horiek oiloak badituzte;  
emazte horien oiloak dira;  
oilok emazte horrenak dira.

Horiek oiloak badituzte;  
horien oiloak dira;  
oilok horienak dira.

Mutiko haiek pilotak badituzte;  
mutiko haien pilotak dira;  
pilotak mutiko haienak dira.

Haiek pilotak badituzte;  
haien pilotak dira;  
pilotak haienak dira.

## 269. Eleketa - Non zer?

*Abereak eta gauzak non dauden aipa.*

Non daude (dira) behiak?

Non daude ardiak?

Non daude xerriak?

Non daude oiloak?

Barrukian, heian.

Arditegian.

Zerritegian, xerritxolan.

Oilategian.

Non dago xakurra?

Non da belarra?

Non dira bihiak?

Non daude saguak?

Zakurtegian.

Sabaian, selauruan, belartegian.

Ganerrean, bihitegian.

Orma (murru) ziloetan.

Kantua - “**Neure Dotea**” (Kantuz, 186. Xaramela, 26)

Aitak eman daut dotea  
 Neurea, neurea:  
 Urdeño bat bere umeekin,  
 Oilo koloka bere xitoekin,  
 Tipula korda heiekin!

Otsoak jan daut urdea  
 Neurea, neurea:  
 Axeriak oilo koloka,  
 Arratoiak tipula korda,  
 Adio neure dotea!

**Hiztegia 26**

-261-

etxalde : propriété  
 aro : temps, époque  
 aitzur : pioche  
 eskuare : rateau  
 laia, palaera : bêche  
 aza : choux  
 porru : poireau  
 erein : semer  
 landatu : planter  
 ilar : haricot  
 biper : piment  
 hazitegi : pépinière  
 baratxuri : ail  
 sortarazi : faire naître  
 orgatxo, eskorga : brouette

-262- -263-

pala : pelle  
 hazi : semence  
 ongarri : fumier  
 barazki : légume  
 lore : fleur  
 landare : plante  
 eduki : posséder

-264-

etxondo : propriété  
 gaindi : à travers  
 ardi : brebis  
 artalde : troupeau de brebis  
 marro : bélier  
 esnadun : (vache) laitière  
 zerritxola : porcherie  
 zerrama : truie  
 zerrikume : porcelet  
 barruki, heia : étable  
 ibil : aller  
 abeltegi : écurie, étable

xahal : veau  
 bihi : grain  
 oilo : poule  
 astaña : ânesse

-266-

aipatu : citer  
 zerritegi : pocherie  
 bazkatu : nourrir

-267-

kuia : citrouille  
 kirtena : tige  
 uzkinazo : geai  
 xoxo : merle  
 araz : sans doute

-269-

oilategi : poulailler  
 zakurtegi : niche  
 sabai, selauru : fenil  
 belartegi : fenil  
 bihitegi, ganer : grenier  
 arditegi : bergerie  
 sagu : souris

-Kantua-

dote : dot  
 neure : le mien  
 urde : porc  
 koloka : poule glousse  
 xito : poussin  
 tipula : oignon  
 korda : corde  
 arratoi : rat  
 adio : adieu

## 27. Sal eta eros

### 271. Familia - Janari dendan

*Etxemendi familia jateko erosten.*

- Saltzaile – Egun on jaun-andereak!  
 Aita – Bai zuri ere.  
 Saltzaile – Hona zuen erosketak  
 sei behiki zerra,  
 kilo bat tipula,  
 bi kilo patata,  
 kilo erdi bat sagar, (lursagar).  
 Maider – Eta zer gureztat  
 Ama – Bi txokolate haur hauentzat  
 Peio – Pinta bat arno aitamentzat.  
 Aita – Eta kondua niretzat.  
 Saltzaile – Orotara 14 euro.  
 Aita – Orizu 15 euro.  
 Saltzaile – 15 ken 14, itzul euro 1,  
 eta esker mila.  
 Aita – Bai, guk zuri. Agur.




### 272. Errepika - Eraman dio, ekarri dizkio.

NORK	NORI	ZER	BAI
Nik	haurrari	gasna	eraman diot
Nik	haurrari	udareak	eraman dizkiot
Nik	hurrei	gasna	eraman diet
Nik	hurrei	udareak	eraman dizkiet
Zuk	haurrari	gasna	eraman diozu
Zuk	haurrari	udareak	eraman dizkiozu
Zuk	hurrei	gasna	eraman diezu
Zuk	hurrei	udareak	eraman dizkiezu
Aitak	haurrari	gasna	ekarri dio
Aitak	haurrari	udareak	ekarri dizkio
Aitak	hurrei	gasna	ekarri die
Aitak	hurrei	udareak	ekarri dizkie

## 274. Gizartean - **Liburu dendan**

*Bi adiskide liburu erosten.*

- Saltzailea – Zer nahi duzue?  
Koldo – Aldizkari bat nahi dugu.  
Saltzailea – Baditut astekariak eta hilabetekariak.  
Koldo – Non dituzu astekariak?  
Saltzailea – Hona Herria, Herriz Herri,  
Aizu eta Argia.  
Koldo – Eta non dira hilabetekariak?  
Saltzailea – Hemen dituzu Jakin, Habe, Maiatz  
eta Albistaria.  
Koldo – Maiatz hartzen dut.  
Zenbat balio du?  
Saltzailea – 4 €. Merke da.  
Maddi – To Euskal Gramatika. 40 €!  
Ai ei! Garestiegi da niretzat.  
Saltzailea – Holako liburu ederra!  
Euskara guzia hemen daukazu.  
Koldo – Ederki! Biek ordainduko dugu eta aldizka irakurriko.



## 275. Errepika - **Guk nori zer?**

Guk	saltzaileari	aldizkariak	erosi dizkiogu
Guk	saltzailei	aldizkariak	erosi dizkiegu
Zuek	lagunari	liburuak	eman dizkiozue
Zuek	lagunei	liburuak	eman dizkiezue
Ikasleek	irakasleari	ipuinak	irakurri dizkiote
Ikasleek	irakasleei	ipuinak	irakurri dizkiete

## 276 Eleketa - **Ordaintzen**

- Saltzailea – Liburua                    40 €  
                  Aldizkaria                    4 €  
                  Bi kaier                        7 €  
                  Arkatza                         3 €  
  
                  Orotara                        54 €  
  
Eroslea – Orizu                        60 €  
Saltzailea – Larria                    60 €  
                  Hartze                         54 €  
                  Gaineratikoa                    6 €. Esker mila.



## 277. Gizartean - Abere merkatua

*Pattin, Manex eta Maddalen Hazparneko merkatuan.*

- Manex – Merkatuko aldi Pattin?  
Pattin – Bai aspaldiko partez.  
Manex – Eta zer daramazu saltzera?  
Pattin – Axuriak baditut saltzeko.  
Baina aste hontan bildotsa merke da.  
Manex – Zenbat eskaintzen dute?  
Pattin – 2,90 euro kiloa.  
Manex – Prezioa beheratu da!  
Pattin – 3 euroz petik ez dizkiet utziko.  
Etxera eramanen ditut.  
Zuek zer duzue salgai.  
Manex – Maddalenek arraultzeak  
eta nik aratxe gizona.  
Maddalen – Gure gauzak ez doaz gora.  
Aratxea 2,60 euro,  
arraultze dotzena 0,75 euro.  
Pattin – Betikoa! Salgaiak merke dira eta erosgaiak kario.



## 278. Errepika - Horrentzat zer darama?

- Haur hori, haur horren, haur horrentzat (horrendako).
- Haur horiek, haur horien, haur horientzat (horiendako).

### Gauza bakar

Nik daramat,  
Hik daramak/n  
Horrek darama

Guk daramagu  
Zuk daramazu  
Zuek daramazue  
Horiek daramate

### Gauza anitz

Nik daramatzat,  
Hik daramatzak/n  
Horrek daramatza

Guk daramatzagu  
Zuk daramatzazu  
Zuek daramatzazue  
Horiek daramatzate

## 279. Eleketa - Merkatuetako prezioak

Hazparnen : Aratxe guti : 2,60 - 3 € kiloa	Garazin : Aratxea 3,20
Axuri anitz : 2,40 - 3 € kiloa	Axuria 3,40
Oilo gutisko : 1,20 - 1,40 € kiloa	Oiloa 1
Ahate guti : 2,30 € kiloa	Ahatea 2,10

1.ikaslea - Aratxea Hazpanen Garazin baino merkeago da...



## Kantua - **Gona gorria** (*Xaramela 282*)

-1-

Nere aitak amari, gona gorria ekarri. (berriz)

Berriz ere maiteko dio, nere amak aitari.

Nere aitak amari, gona gorria ekarri.

-2-

Gona gorri gorria, zazpi jostunek josia. (berriz)

Berriz ere maiteko dio, nere amak aitari.

Nere aitak amari, gona gorria ekarri.

-3-

Nere amak aitari, praka berriak ekarri. (berriz)

Berriz ere maiteko dio, nere aitak amari.

Nere amak aitari, praka berriak ekarri. (jarrai)

## **Hiztegia 27**

-271- -272-

erosi : acheter  
erosketa : achat  
behiki : viande de vache  
zerra : tranche  
kilo : kilo  
txokolate : chocolat  
pinta : litre  
aitamak : parents  
kondu : compte  
udare : poire

-274-

aldizkari : périodique  
astekari : hebdomadaire  
enbata : vent d'ouest  
hilabetekari : mensuel  
habe : poutre  
albistari : journaliste  
aldizka : à tour de rôle  
garesti : cher

-275- -276-

dendari : marchand, couturière  
hartze : créance  
xehe : monnaie  
gaineratiko : surplus

-277- -279-

beti : toujours  
eskaini : offrir  
partez : de la part de  
salgai : marchandise  
erosgai : achat  
kario : cher  
beheratu : baisser  
gizen : gras, graisse

-Kantua-

berriz : bis  
jostun : couturier  
josi : coudre  
praka : pantalon  
xaramela : chant

## 28. Hau lana!

### 281. Etxean - Asteko lanak

*Igande arratsaldean, heldu den asteaz mintzo.*

- Aita – Eskolako gauzak (puskak) presta itzazue, bihar lana berriz hasten baita.  
 Mainer – Aste arina dugu eskolan. Bihar eta etzi egutegi normala dugu.  
 Peio – Asteazkenean beti bezala lanarte. Arratsaldean zaldiak eta astirian dantza eta txistu errepikak.  
 Mainer – Ostegunean, ikastaldiak ditugu, baina biharamunean irakasleak greban daude.  
 Peio – Larunbatean auzapezaren eguna da.  
 Aita – Ez dakit zer den auzapezaren eguna!  
 Peio – Urte guziz auzapezak ematen digu lanarte bat.  
 Mainer – Beraz ostiraletik astelehenera oporrak ditugu.  
 Aita – Hurrek eskolan beti lanarte, Aita-amek beti lan eta lan!  
 Peio – Hobe guretzat!  
 Aita – Ez da zuzen!  
 Mainer – Beraz, joan eskolara.

igandea 23

astelehena 24

asteartea 25

asteazkena 26

osteguna 27

ostirala 28

larunbata 29

igandea 30

### 282. Errepika - Badakit, ez dakit

NORK	(BAI edo EZ)	ZER	NORK	ZER	(BAI edo EZ)
Nik	badakit	euskara	Nik	zientziak	dakizkit
Hik	ez dakik/n	euskararik	Hik	berriak	dakizkik/n
Peiok	badaki	kontatzen	Horrek	berririk	ez daki
Guk	badakigu	pilotan	Guk	hizkuntzak	dakizkigu
Zuk	ez dakizu	geografiarik	Zuk	ipuinak	dakizkizu
Zuek	ez dakizue	inglesik	Zuek	ipuinik	ez dakizkizue
hurrek	badakite	igerika	Horiek	berriak	dakizkite

### 283. Eleketa - Zer dakizu?

1. Euskara badakizu?
2. Euskara ongi dakizu?
2. Pixka bat. Ikasten ari naiz.
3. Bai, euskara ongi badakit.

## 284. Lagunartean - **Zer lana!**

*Langileak elgarrekin etxera : asteko gertakariak.*

- Amaia – Hau lana aste hontan!  
Leihatilan bileta (txartel) banatzen  
eta aste ondarrean lagileen soldatak.
- Koldo – Garajea (autotegian) lan izigarria dugu.  
Autoak prestatzen ditugu  
oporretara joaten direnentzat.
- Amaiak Maddiri – Zenbat liburu duzun!  
Maddi – Guk azterketak ditugu hilabete honetan.  
Urteko ikasgai guziak gogoz ikasten ditugu.
- Amaiak Mixeli – Harginak beti beranta du!  
Mixel – Etxegintzan harrigarri da zer lana dugun!  
Jabea lasterka, nagusia lasterka,  
denak lasterka. Zuek ere funtsean!
- Koldo – Badakizue zer izanen den Baigorri  
heldu den igandean?
- Amaia – Bai badakigu Nafarroaren  
eguna dela.
- Koldo – Astegunak luzegi dira  
eta asteburua laburregi da!



## 285. Errepika - **Nor den, zer den.**

- Galdea – Nor da?  
Erantzuna – Nik badakit nor den.
- Galdea – Zer da?  
Erantzuna – Nik badakit zer den.

## **Norekin**

- Mailux eta laguna: Mailux lagunarekin.  
Hori eta hori : hori horrekin.
- Mailux eta lagunak: Mailux lagunekin.  
Hori eta horiek: hori horiekin.

## 286. Eleketa - **Berriketa**

- |                                |                      |
|--------------------------------|----------------------|
| Galdea – Nor etorri da?        | Zer egin du Amaiak?  |
| Erantzuna – Koldo etorri da.   | Non da pesta?        |
| Galdea – Zer erran duzu?       | Zer da Baigorri?     |
| Erantzuna – Koldo etorri dela. | Zein dira astegunak? |

## 287. Lagunartean - Lanaren pesta

*Xerreilaren gaintetik lanaz mintzo.*

- Pattin – Zer ari zarete, jaun-andereak?  
Txomin – Deus ez. Pesta dugu.  
Pattin – Oroitzen naiz zer pesta dugun.  
Maiatzaren lehena, alferren pesta.  
Txomin – Ez, ez. Langileen pesta.  
Mailux – Eta zuk belarra epaiten duzu?  
Pattin – Guk ez dugu lanarterik.  
Ardiak egun guzietan artatzen ditugu.  
Mailux – Badituzue bai, merkatuak  
eta feriak, astearen hausteko  
Pattin – Merkatua ere lana da guretzat:  
axuriak eta gasna saltzen ditugu.  
Mailux – Zer gizon langilea zaren!  
Txominek ere lan anitz egiten du.  
Pattin – Badakit ba zer lana egiten duzuen!  
Txomin – Zorionez asteburua hor dugu  
atseden pixka baten hartzeko.  
Mailux – Laborarientzat eta langileentzat  
igandeak zer egun gozoak diren!



## 288. Errepika - Nor zaren, zer duzun.

(GALDE)	BADAKIT	(GALDE)	ERRAN DU
Nor naiz?	nor naizen.	Zer dut?	zer dutan.
Nor haiz?	nor haizen.	Zer duk/n?	zer duk/n/an.
Nor da?	nor den.	Zer du?	zer duen.
Nor gara?	nor garen.	Zer dugu?	zer dugun.
Nor zara?	nor zaren.	Zer duzu?	zer duzun.
Nor zarete?	nor zareten.	Zer duzue?	zer duzuen.
Nor dira?	nor diren.	Zer dute?	zer duten.

Ikus zehar galdera, 86. orrialdean.

## 289. Eleketa - Badakizu ala ez dakizu?

- Galdea – Ni nor naiz?  
Erantzuna – Itziar zara.  
Galdea – Ez dakizu nor naizen?  
Erantzuna – Badakit Itziar zarela.  
Galdea – Zer egin duzu?  
Erantzuna – Lan egin dut.  
Galdea – Zer erran duzu?  
Erantzuna – Lan egin dutala.  
Zer erran duzu?  
Zer jan duzu?  
Nondik etorri zara?  
Nora joan zara?  
Nor gara gu?  
Zer ari zara, zu?  
Zer ari zarete, zuek?  
...

## Kantua - **Haika mutil**

- 1 -

Haika mutil, jaiki hadi,  
Argia den mira hadi.

- Bai nausia argia da,  
Gure oilarra kanpoan da.

- 2 -

Haika mutil, jaiki hadi,  
Euria den mira hadi.

- Bai nausia euria da,  
Gure borta bustia da.

3 - Haika mutil, jaiki hadi,  
Surik baden mira hadi.

- Bai nausia, sua bada,  
Gure gatusa beroa da.

- 4 -

Haika mutil, jaiki hadi,  
Hortxe zer den mira hadi.

- Bai nausia, haizia da,  
Gure leihoa ideki da.

## **Hiztegia 28**

-281-283-

astiri : crépuscule  
greba : grève  
ikastaldi : cours  
hobe : meilleur  
ingles : anglais  
igerika : nage

-284-286-

elgar : réciproquement  
leihatila : guichet  
banatu : distribuer  
ondar : fin, reste  
soldata : salaire  
garaje, autotegi : garage  
hargin : maçon  
funtsean : au fond  
asteguna : jour ouvrable  
galde : question  
erantzun : réponse

-287-

xereila : barrière  
oroitu : se souvenir  
lehen : premier  
feria : foire  
atseden : contentement  
gozo : agréable  
alfer : inutile  
epaitu : faucher  
artatu : soigner

-Kantua-

haika, jaiki : debout  
oilarra : coq  
miratu : examiner  
borta, ate : porte  
busti : mouiller  
hementxe : ici même  
hortxe : là même  
hantxe : là-bas même

## 29. Zein egun da?

### 291. Etxean - Hilabeteak

*Lau sasoietako hilabeteak.*

- Ama – Nork dakizki lau sasoiak?  
Oihana – Nik badazkit: udaberria, uda, udazkena eta negua.  
Ama – Negua abendoaren 21ean hasten da.  
Peio – Zein dira neguko beste hilabeteak?  
Ama – Urtarrila, otsaila eta martxoa.  
Maider – Udaberria martxoaren 21ean hasten da.  
Oihana – Zein dira udaberriko beste hilabeteak?  
Maider – Apirila, maiatza eta ekaina.  
Peio – Ederki! Ekainaren 21ean uda dugu.  
Ama – Nork dazki udako beste hilabeteak?  
Peio – Uztaila, agorrila eta iraila.  
Oihana – Udazkena irailaren 21ean hasten da.  
Maider – Eta beste hilabeteak?  
Oihana – Urria, azaroa eta abendoa.  
Ama – Hori! Urtea burutik buru iragan dugu.



### 292. Errepika - Noiz?

- Lehen – atzo, herenegun.  
Egun – gaur, gaurregun.  
Gero – bihar, etzi, etzidamu.  
Udan, neguan. Astelehenean, asteartean.  
Urtarrilean, otsailean.  
Maiatzaren hogeitabatean. Noizean behin.  
Pazkoz, eguberriz. Igandez edo igande guziz. Egun batez.


### 293. Eleketa - Egutegia?

1. Astelehean eskola dugu:
  - goizean frantsesa eta matematikak lantzen ditugu;
  - arratsaldean kiroletan bermatzen gara.
2. Astearte goizean zientziak ikasten ditugu.
3. Asteazkenean ez dugu eskolarik:
  - goizean lo egiten dugu eta gero katiximara goaz.
  - arratsaldean txistuz ikasten dugu.
4. Ostegunean berriz eskola. Eta zuk?

## 294. Eskolan - Oporrak noiz?

*Eskolan egutegia ikasten.*

- Maite – Noiz ditugu udako oporrak?  
Andereño – Uztailaren lehenetik irailaren 15a arte.  
Omi-sainduz lau egun lan-arte ditugu.  
Beñat – Eguberriz ere oporrak baditugu?  
Andereño – Bai segurki, eguberriz eta urtatsez,  
abenduaren 20etik urtarrilaren 5 arte.  
Beñat – Zorionak eta urteberri on!  
Andereño – Otsailean ihauteriak ditugu.  
Xabier – A bai! Mozorroekin ibiliko gara,  
karrikaz karrika.  
Andereño – Eta Pazkoz oporrak dituzue bi astez  
aste saindua eta bestea Pazko Zahar arte.  
Iban – Zer? Ez dugu beste oporrik?  
Andereño – Bai, bai, Mendekostez bost egun.  
Iban – Beharrik! Nekatuak gara!



## 295. Errepika - Noizetik, Noizera.

- Udan eta udazkena : udatik negu arte.  
Ostegunean eta ostiralean: ostegunetik larunbatera.  
Urrian eta azaroan: urritik abendu arte.  
Uztailaren lauan eta bostean: uztailaren 4tik 6ra.  
Atzo eta bihar: atzotik biharrera edo bihar arte.

## 296. Idazketa - Egonaldiko agiria.

*Bulegoan agiria bete :*

- Izena eta deitura: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Sorteguna eta sorlekua: \_\_\_\_\_  
Udalekua non? \_\_\_\_\_  
Noizetik noizera? \_\_\_\_\_

- Galdea – Zein da zure sorteguna?  
Erantzuna – Ez naiz oroit. Aspaldi du!

- Galdea – Udan non duzu egonaldia?  
Erantzuna – Donazaharren, Sala jauregian.

- Galdea – Noizetik noizera da egonaldia?  
Erantzuna – Uztailaren hirutik hogeitalaua arte.

## 297. Lagunartean - **Sorteguna**

*Sorteguna ospatzen lagunartean.*

Txomin – Adiskideak, gaur zein egun da?

Koldo – Maiatzaren bosta. Eta gero?

Txomin – Eta gero? Nere sorteguna da.  
30 urte ditut hain zuzen.

Koldo – Zorionak, Txomin! zorionak!  
Goazen, hurrupa bat edan dezagun.

Txomin – Orain zein dira zuen sortegunak  
egutegian idazteko?

Koldo – Ni, ekainaren seian sortua naiz.

Maddi – Ni, abendoaren hogeita seian,  
Eguberri biharamunean.

Txomin – Ez araz idiazen eta astoaren artean!

Maddi – Hain zuzen, bai. Egund bezala,  
astoaren eta idiazen artean.

Koldo – Beraz, Txominen osagarriari!

Txomin – On dagizuela adiskideak!



## 298. Errepika - **1989**

1 mila

9 bederatzi ehun eta

8 larrogeita-

9 bederatzi ko

urtarrila-REN

otsaila-

martxoa-

apirila-

bat-A

bi-

hiru-

lau-

## **Zenbakien arteko loturak :**

Miloi eta milaren ondotik : “, “.

Ehunen ondotik : “eta”.

Besta zenbakien ondotik : “-ta”- hitzak loturik.

Lotzean hamar eta hogei : “H” gabe idazten dira.

1989 : mila, bederatziehun eta larrogeitabederatzi.

10 875 : hamar mila, zortziehun eta hirurogeitamabost.

## 299. Eleketa : **Sorteguna egutegian**

Galdea – Zein da zure sorteguna?

Erantzuna – Urriaren zortzian.

Galdea – Zein urtez?

Erantzuna – Mila bederatzi ehun eta hirurogeita hamarreen.



## Kantua - “Zorionak zuri”

Errepika: Zorionak zuri, zorionak zuri,  
Zorionak “Maite”, zorionak zuri

- 1 -

Zure inguruan “Maite”  
Kantu, dantza, irrifarre,  
Giro huntaz ez izan ahalge,  
Gu denak zurekin gaude...  
Aspaldiko errepikan,  
Gu ariko gira kantan,  
Zure urte betetzean  
Denak zure ohoretan!

- 2 -

Urte berri honi esker,  
har zazu bizian plazer,  
eta arrangurak utzi bazter.  
Ardoa eskent laguner...  
Aspaldiko errepikan,  
Gu ariko gira kantan,  
Zure urte betetzean,  
Denak zure ohoretan!

(*Bersetak : Niko Etxart-ek eginak Euskaraz Bizi-rentzat, 1988*)

## Hiztegia 29

-291-

urtarril	: janvier
otsail	: février
martxo	: mars
apiril	: avril
maiatz	: mai
ekain	: juin
uztail	: juillet
agorri, abuztu	: août
irail, buruil	: septembre
urri	: octobre
azaro	: novembre
abendu	: décembre
urte	: année

-292-

herenegun	: avant-hier
egun, gaur egun	: aujourd’hui
gaur	: ce soir
etzimadu	: dans trois jours

-293-

kirol	: sport
bermatu	: s’activer
katixima	: catéchisme

-294-

Omiainsandu	: Toussaint
urteberri	: nouvel an
ihauteri	: carnaval
mozorro, maska	: masque
Mendekoste	: Pentecôte
saindu	: saint

-296-

egonaldi	: séjour
agiri	: formulaire
deitura	: nom
udaleku	: séjour d’été
Donazaharre	: Saint-Jean-le-Vieux

-297- -298-

ospatu	: célébrer
egun	: date
hurrupa	: gorgée
zenbaki	: chiffre, nombre


-Kantua-

irri, irrifarre	: rire
nori esker	: grâce à qui
arrangura	: crainte
giro	: ambiance
bete	: accomplir
bazter	: à côté

## 30. Atsegin, atsegabe

### 301. Etxean - Urteburua

- Ama – Zorionak Oihana!  
– Zorionak, zorionak Oihana!  
Anitz urtez!
- Oihana – Bat, bi, hiru, lau, bost, sei.  
Sei urte dut.  
Zein zaharra naizen!
- Aita – Ufa ezkoak, zer hatsa duzun!
- Oihana – Ufa! Ufa!
- Denek – Hori neska!
- Ama – Eta hona zure presenta.
- Oihana – Zer da hau?  
Hori, hori hegazkina!
- Xabier – Harrigarria! Zein polita den!
- Oihana – Biziki kontent naiz.  
Mila potta denei!



### 302. Errepika - Atsegin hitzak

Zorionak! Goresmenak!  
Zer plazerra! Zer atsegina!

Gora Manex! Aupa Peio!  
Iufi! Oporrak ditugu!

Zer present polita!  
Zer present ederra den!  
Nolako etxalde ederra!

Zein ederra!  
Zein ederra den!  
Bainan zein ederra!

### 303. Idazketa - Gutuna

*Amona maitea.*

Zuk igorri presenta biziki gustatzen zait  
Milesker! Hau auto ederra!  
Laster etorriko naiz zure ikustera.  
Ikus arte. Goraintzi aitonari.  
Mila potta gu guzien partez.

Zure semetxo, Xabier.

### 304. Eskolan - **Mokoka**

*Bi haur, nirea eta nirea.*

- Andereño – Pilota hau aurkitu dut.  
– Norena da?  
Maite – Nirea da.  
Beñat – Ez andereño! Nirea da.  
Andereño – Beraz niretzat atxikiko dut.  
Maite – Beñat gezurtia haiz!  
Beñat – Eta hi astaña handia!  
Maite – Astoa ! To mazelako bat!  
Beñat – Neska madarikatua,  
habil debruetan hara!  
Andereño – Iso otoi haurrak!  
Pilota aldizka erabiliko duzue.  
Maite – Ez da zuzen, nirea da!  
Beñat – Gezurra dion. Nirea dun!  
Andereño – Beraz goizean Maiterena izanen  
da, arratsaldean Beñatena eta arratsean nirea!



### 305. Errepika - **Hasarre hitzak**

Arraioa! Urde zikina! Tripustela!  
Haizen astoa! Eta hi astaña.

#### **Harridura ezkorra**

Ja! Nonbaitik ere!  
Zinez baietz! Segur ezetz!  
Zer bizia! Hauk bizia!  
Zuk errazu!  
Egundaino holakorik!  
Mutiko koska! Mutikoaren koska!  
Koska da gero! Zinez koska!

### 306. Eleketa - **Jendea kexu!**

*Pilotan batek irabazten eta besteak galtzen...*

- Irabazlea – Hori mutikoa!  
Galtzailea – Isil hadi, astoa!  
  
Irabazlea – Ni, ni pilotari ona!  
Galtzailea – Arraioa! Haizen zanga motza!

### 307. Lagunartean - **Harrigarria**

*Mendian, denbora eder batez.*

- Koldo – Larrun gainera heltzen ari gara.  
Maddi – Uf ! Akitua naiz.  
Bainan zer bista zabala!  
Koldo – Zuk errazu!  
Mendiak zein ederrak diren!  
Maddi – Begira ezazu, hemen Arzamendi,  
hor Ursu, han Baigura.  
Koldo – Ikus ezazu itsasoaren urdina!  
Maddi – Hauk herri ederrak:  
Hendaia, Ziburu,  
Donibane Lohizune, Miarritze  
(Biarritz).  
Koldo – Zein urrun ikusten dugun iparraldean.  
Harrigarria! Aturri ere ageri da.  
Maddi – Hegoaldea zein patarra den  
Begira Bera ibar ziloan, ttipi ttipia.  
Koldo – Zinez baietz!  
Gure herria munduko ederrena da.



### 308. Errepika - **Harridura baikorrak**

Hau etxea!  
Hau etxea hau!  
Hau duzun etxea!

Hauk mendiak!  
Hauk mendiak! Hauk!  
Hauk mendi handiak!  
A zer mendi handiak!

Hori mutikoa!  
Hori mutikoa hori!  
Hori duk pilotaria!

Zer gauza!  
Zer gauza hau!  
Zer gauza ona!  
A zer gauza ona den!

### 309. Eleketa - **Zer herri ederra dugun!**

*Mendian, bazter ikuska.*

1. ibilkaria – Zein ederrak diren mendiak!
2. ibilkaria – Zuk errazu!

- Oihanak, ibarrak eta ibaiak.
- Itsasoa, uhinak eta hondartza.

## Kantua : **Bagare**

Errepika :

Araban bagara, Gipuzkun bagera,  
Ziberun bagire, ta Bizkaian bagera. (berriz)  
Bai eta ere, Lapurdin ta Nafarran.

-1-

Guztiok gara Euskaldun,  
Guztiok anaiak gera.  
Nahiz eta hitz ezberdinez,  
Baina bera dugu hizkera.

-2-

Herri bat dugu osatzen  
Eta gure zabarkeriz,  
Hizkuntza bat hondatzen.  
Bagare, bagira, bagire, bagara.

## **Hiztegia 30**

-301-

urteburu : anniversaire  
bixkotx : gâteau  
ezko, xirio : cierge  
polita : joli  
biziki : très  
kontent : content  
potta : baiser

-302-

hitz : mot  
goraintzi : salutation

-304-

mosko : bec  
mokoka : querelle  
aurkitu : trouver  
gezurti : menteur  
mazelako : gifle  
madarikatu : maudire  
debru : diable  
iso ! : silence !  
otoi : s'il vous plaît  
gezur : mensonge

-305- -306-

arraio : maudit  
tripustel : ventre pourri  
harridura : étonnement  
ezkor : négatif  
zin : serment  
koska : coléreux  
egundaino : jamais  
zinez : vraiment

irabazle : gagnant  
galtzaile : perdant

-307-

bista : vue  
Ziburu : Ciboure  
Miarritze, Biarritz : Biarritz  
ageri : visible  
patar : pente  
Bera : Vera  
ibar : vallée

-308-

baikor : positif  
uhin : vague

-Kantua-

bagara : nous sommes là  
nahiz : bien que  
bera : identique  
hizkera : langage  
osatu : compléter  
zabarkeria : négligence  
hondatu : détruire  
ezberdin : différent

# Aurkibidea

## 21. Nor da gizon hau!

- Apaintzen (*Egon, egoten, egonen*)
- Gorputza (*Dena den, erlatiboa*)
- Amerikanoa (*Eukaldun xapeldun, erlatiboa*)
- "Tupindegiko Roxali" . . . . . 6. orrialde

## 22. Nola zara?

- Garbitasuna (*hori, horrek*)
- Sendagilearen etxean (*min duenak, erlatiboa*)
- Farmazian : (*hori, horiek*)
- "Jaz hil zerautan senarra" . . . . . 10. orr.

## 23. Laborantza

- Laborarien lana (*Hemen, hor, han*)
- Landetan (*Ibil, erabil*)
- Pentzeetan (*Egin nuen, egin nituen*)
- "Sotoko oporra" . . . . . 14. orr.

## 24. Nora zoaz?

- Hiri ikuska (*Joan, joaten, joanen*)
- Azkaineko inguruak (*Hortarik, hortara*)
- Txirrindulez (*Horietarik horietara*)
- "Euskaldun makila" . . . . . 18. orr.

## 25. Zer diozu?

- Kantaldia (*Horri, horiet*)
- Herriko Etxean (*Nintzen*)
- Manifestaldia (*Zer dela, osagaia*)
- "Euskadiko gazteria" . . . . . 22. orr.

## 26. Zer etxaldea!

- Baratzean (*Zer daukazu?*)
- Abereak (*Honena, horrena, harena*)
- Landareak (*Hauena, horiena, haiena*)
- "Aitak eman daut dotea" . . . . . 26. orr.

## 27. Sal eta eros

- Janari denda (*Eraman dio, ekarri dizkio*)
- Liburu denda (*Guk nori zer?*)
- "Merkatua" (*Horrentzat, horientzat derama*)
- "Gona gorria" . . . . . 30. orr.

## 28. Hau lana!

- Asteko lanak (*Badakit, ez dakit*)
- Zer lana! (*Nor den, zer duen, galdea*)
- Lanaren pesta (*Nor zaren, zer duzun, galdea*)
- "Haika mutil". . . . . 34. orr.

## 29. Zer egun da?

- Hilabeteak (*Noiz? atzo, bihar, udan*)
- Oporrak noiz? (*Noizetik, noiz arte*)
- Sorteguna (1989)
- "Zorionak zuri" . . . . . 38. orr.

## 30. Atsegin, atsegabe

- Urteburua (*Atsegin hitzak*).
- Mokoka (*Atsegabe hitzak*)
- Harrigarria (*Harridura hitzak*)
- "Bagare, bagira" . . . . . 42. orr.
  
- Aurkibidea . . . . . 46. orr.



